

# HAU BAI ISTORIO BASATIA, MINI MONI!

Rocio Bonilla





Bazen behin, aspaldi-aspaldian, jende oneko lurralde bat. Bakean bizi ziren, soroak lantzen eta abere-taldeak zaintzen. Erregeak ontasunez eta jakituriaz gobernatzen zuen herria.

Baina halako egun on batez -edo txar batez, nola begiratzeko den- piztia izugarri bat agertu zen.



Herensuge handi eta basati hark egunero abelburu bat ematea eskatzen zien,  
bere gose izugarria asetzeko.

Ematen ez bazioten, mehatxu egiten zuen herriko jendea jango zuela eta,  
masailezurretatik sortzen zitzaion suarekin, gaztelua suntsituko zuela.